

Animac, Nazioarteko animazio jaialdia
Lleida, otsailaren 24tik 27ra
Donostia, Arteleku, martxoaren 1, 2, 3 eta 5ean
Alex Mendizabalen kontzertua

Altabozak geldi gehiago inoiz ez!!



Miliet Arbiza

Agian hau izan liteke Curva Chiusa proiektuaren lema, soinua mugimenduan. Alex Mendizabal donostiar soinu artista, konposatzaile, instrumentu egile, asmatzaile... bildumatzailak Erroman bizi denetik esku eta belarri artean dituen proiektuetako bat da Curva Chiusarena. Soinu iturriak mugitu, bai bizikleta gainean egindako kontzertuak direla, bai instrumentuaren mugimendu fisikoaren bitartez.

Joan den martxoan izan nuen Mendizabalen entzunaldi bitxi bat lehen aldiz zuzenean gozatzeko aukera, Lleidan ospatzen den Animac jaialdian. Animazioko zinemaren bilakaera eta gaur egungo joeren berri izateko ezinbesteko bilakatu den hitzordu honek Artelekurekin mantentzen duen kolaborazioari esker, Mendizabalen lana ere ekarri zuten Donosti aldera martxoan.

Lleidan Mendizabalek "Ea ezer" izenburupean aurkeztu zuen bere lana. Jaialdiaren esku programan, izenburua eta "En directe" hitzak soilik, azalpen gehiagorik gabe. Prentsa arduradunak larri ibili ziren Mendizabalen proposamena kazetariei azaltzerakoan. Pista gutxi zeuden, soinua mugimenduan, irudirik gabeko zinema, iluntasuna... Aretoa gainezka zegoen entzunaldia hasterakoan, beltz, ilun, isilik. Iluntasunak betidanik izan du oso prentsa txarra, konnotazio negatiboak gehienbat. Beldurra, isilta-

sun, gaua, gelditasuna, ezereza, heriotza... Mendizabalek berriz, iluntasuna soinuarekin jantzi eta emozio eta sentimenduz betetzen du. Eskertzekoa da mila irudiz hornituriko jaialdi baten egitarauan honelako proposamen bat agertzea. Zirrara gozo bat, lasaitasuna. Ia begiek ikusten ez dutenean, iluntasunak dakarren sosegua. Beste zentzumenak pizten dira, kasu honetan, entzumen.

Zinema teorikoki irudiz eta soinu osatzen da, *fifty-fifty*. Baina bata eta besteak ohiko ekoizpenetan izaten duten garrantzia edo presentzia ez da gaur egun batera orekatua. Mendizabalek ehuneko ehuna ematen dio soinuari eta ikus-entzuleak sortu ditza-ke irudiak, nahi izanez gero. Bere lanaren alderdi bat diren film itsu hauek aspaldi dela sortzen ditu. 1999tik 2004ra arte Lazkaoko beneditarrek utzitako lokal batean aritu da honetan, hain zaila den erabateko iluntasunaren bila, eta 1996tik zinemagile independente askorekin elkarlanean, ikusmena eta entzumenaren arteko tirabirak aztertu ditu. Lehenago ere Zine Animau (film bat ez da zuzendariarena, proiektatzen duenarena baizik!) izeneko taldea izan zuen Euskal Herrian, Juanjo Arangurenekin batera.

Film itsuen zergatiak galdetzen zaionean, zinema *kynema* moduan ulertzen duela dio, mugimendua. Irudia ez da begien bistakoa bere ustez, lengoaia baino lehen dagoen pertzepzioa baino. Esperimentazio eta kontzeptu hauek ikus-entzuleari adierazteko, Lleidak emanaldian aplikadore gabeko muntaia organiko ederra prestatu zuen Mendizabalek. Sokekin osaturiko sare antzeko bat sabai moduan. Soka horietan banaturik soinu iturri desberdinak, hondarra, ura, eta Mendizabal aretoaren txoko batean soketatik tiraka, soinuak sortzen. Pentagrama kaotiko baten antza zuen tramankuluak, entzunaldia amaitu ondoren, argiak piztean, gure gainean ikusi genuenean.

Geroago jakin nuen telebista batekoek "Ea ezer" emanaldiaren irudiak grabatzeko baimena eskatu zietela jaialdiko arduradunei. Ez dakit zer erantzungo zion prentsa arduradunak, baina azkenean ez ziren kamerarekin agertu. Hemendik aurrera jakingo dute zinema ere itsua izan daitekeela, eta soinua mugimendua. Altabozak geldi gehiago inoiz ez!! Iban Del Campo